

# SEGURTASUNA IKASTETXERAKO SARRERA-IRTEERETAN

## ZER EGIN DEZAKET?

# 10

1

Pilaketarik ez dagoenean erabili bizikleta, horrela ikuspen handiagoa izango baituzu eta besteek ere hobeto ikusiko baitzaituzte zu.



bizikletaz

2

Kaskoa ondo jantzita eta ondo lotuta eduki, eta gogoratu 16 urte bete arte derrigorrezkoa dela kaskoa herri barruan ere erabiltzea.



3

Bidegorritik ibili, halakorik egonez gero; beti eskuinetik eta bata bestearen atzetik.




4

Argiekin batera, islagailuren bat eraman; behe-lainoko edo ikuspen gutxiko egunetan, batez ere.



5

Ez erabili entzungailurik eta telefonorik gidatzen ari zaren bitartean.



6

Ez deskuidatu mugikorrarekin; batez ere, kalea zeharkatzen ari zarenean eta garaje-irteeretatik pasatzen ari zarenean.



oinez

7

Talde txikitara joan oinez, eta beti espaloitik.



8

Kalea zeharkatu baino lehen, begiratu, ibilgailurik ez datorrela ziurtatzeko; eta ibilgailuren bat badator, abiadura moteltzen ari dela egiaztatu oinez hasi aurretik.



9

Banaka eta modu ordenatuan igo eta jaitsi autobusetik, besteei bultza egin gabe.



autobusez



10

Egin beharreko joan-etorria edozein izanda ere, segurtasun-uhala lotu, autobusak halakorik badu.



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

SEGURTASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD